

## GURUTZEKO JOAN DONEAREN OLERKIAK A. MANESSIER-EN TAPIZETAN

### Sarrera

Tapizak eta dagozkien iruskinak aurkeztu baino lehen, Alfred Manessier ertilari handia eta beronen ertilari-bizitza aurkeztea dagokigu, labur-bilduz bada ere.

**1911** Abenduaren 5n Saint-Ouen-en jaio, Abbeville (Somme).

Ikasketak egin Amiens-en.

Aita: merkatari. Aitona: Argin.

**1929** Paris-en Arte Ederren eskolan (arte plastikatako eskola nagusian) arkitektura ikasten. Aldi berean, Louvre-n Tintoretto, Rembrandt ta abar kopiatzen ditu, eta ia osoan margolaritzari emanik ari da.

**1933** Aspalditik Le Moal-ekin adiskide da eta beronekin Eygalières-en margo-lanetan. *Indépendants* delako taldean sartu da.

**1935** Ranson Akademia ikusi du, Bissière irakasle duen akademia, eta Bertholleten eta Etienne-Martin eta Stahly eskultoreen ezagutza egin du.

**1936-1937** Amiens-en eman du denboraldi bat aitaren eriotzeak sortu duen ondare arazoa konpontzen. Nazioarteko Erakusketan bere adiskideekin eta Esteve-rekin lan-kide.

**1938-1939** Lyon-go *Témoignage* taldekoa eginik, bere lanak Pariseko Breteau Galerian erakusten ditu, Rue des Canettes kalean, geroko Bonaparte izenekoan. Thérèse Simonnet hartu du emazte.

**1940-1941** Jean Baptiste semea jaio zaio. Benaugue-n, Bissière ondoan, hasi da bizitzen. Parisera itzuli eta Braun Galeriako erakusketan parte hartzen du, *frantzes giroko ogei margolari* deritzanean.

**1942-1944** *Jeune France*-koan lanean. Erakusketa askotan parte hartzaile, Berri-Raspail Galerian, France Galerian, baita Maiatz-erakusketan. Bolara labur batez egonaldi laburra egin du Soligny trapakoen fraide-etxean eta betiko Jainkozaletu.